

Abenduaren 9an
ABENDUALDIKO II. IGANDEA (C)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Itun Zaharreko profeta handiaren, Isaiasen, ahotsa ozen entzuten dugu Abendualdiko bigarren igande honetan: herri guztiak salbatzera datorren Jaunari begira jarriko gaitu, gizaki guztiak poztera datorren Jaunaren zain egoteko esango digu. [Itxaropen horrekin pizten dugu orain Abenduko bigarren kandela].

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 5-6 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitzen.

—Jesus Jauna, gure bekatu guztien barkamen-iturria zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztiok bihotz berritu gaitzen nahi duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Espiritu Santuaz bataiatu gaituzuna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Otoitza

**Jainko errukitsu ahalguztiduna,
 lur honetako egintzek ez gaitzatela lotu
 zure Semearen bidera goazenok,
 eta jainko-jakinduriaren irakaspeneke eraman gaitzatela
 zure Semearekin bat egitera.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Nola entzuten diot Jaunari? Nola uzten diot mintza dakidan? Ez ote ditugu bideak itxi, agortu? Guk ezagutzen ez ditugun bide eta neurrietan agertuko zaigun Jaunari harrera egin ahal izateko ezinbestekoa dugu begirada zabaltzea eta erne bizitzea.

Lehenengo irakurgaia (Ba 5, 1-9)

Baruk Profetaren liburutik

Jerusalem, erantzi dolu eta atsekabetako soinekoa, jantzi betiko, Jainkoaren aintzaren ederra. Bildu zure gorputza Jainkoak ematen dizun zuzentasunaren soingainekoz, eta ezarri buruan betiereko aintzazko koroa. Agertuko baitie Jainkoak zure distira zerupearan bizi diren guztiei. Jainkoak izen hau emango dizu behin betirako: «Bakea Zuzentasunean, Ospea jainkozaletasunean». Jaiki zaitez, Jerusalem, igo gaintara; begira sortaldera eta ikus zeure seme-alabak, sortaldetik sartalderaino Santuaren hitzak bilduak, eta pozturik, Jaungoikoa haietaz gogoratu delako. Oinez atera ziren, etsaiak eramanda; baina Jainkoak aintzatan ekartzen dizkizu, errege-gurdian bezala. Jainkoak erabaki du, mendi goi guztiak eta muinoak makurtzea, zulo uneak betetzea, lurra berdintzeraino; Israel lasai etor

dadin, Jaungoikoaren aintzak zuzendurik. Basoei eta usain oneko zuhaitzei Israeli itzala emateko agindu die. Pozetan eramango baitu Jaungoikoak Israel, bere aintzaren argiz, bere zintzotasunez eta errukiz.

Erantzun-salmoa (*Sal* 125, 1-2ab. 2cd-3. 4-5. 6)

As - ko la - gun - du di - gu - zu, Jau - na. Hau -
 xe da po - za guk dau - ka - gu - na!

Jaunak Siongo atxilotuak erakartzean,
 bageunden amets antzean.

Orduan bete zitzaigun ahoa parrez,
 gure mingaina gorazarrez. R/.

Atzerrietan, orduan, esan zuten:

«Jauna handikiro jokatua dute».

Gurekin handikiro jokatu da Jauna:

Hau da poza daukaguna! R/.

Bihur ezazu, Jauna, gure zoria,

Negebeko erreka urak bezala.

Malkoz erein dutenek,

pozez bilduko dute. R/.

Haruntzakoan hor doaz negarrez,

ereiteko gari zorroa eramanez.

Pozik etorriko dira honuntzakoan,

gari balak eskuan. R/.

Bigarren irakurgaia (*F/p* 1, 4-6. 8-11)

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Senideok: Zuentzat otoitz egiten dudanean, pozik eskatzen diot Jaungoikoari. Zuek laguntzaile izan baitzaituztet Ebanjelioko eginkizunean, lehenengo egunetik orain arte. Badut uste, eginbide on hau zuengan hasi duenak, bukatuko duela Jesu Kristoren egunera arte.

Testigu dut Jainkoa, zeinen kristau maitasun handiz maite zaituztedan. Eta hau da nire otoitza: gero eta handiago egin dadila zuen maitasun elkarte, ezagutze sakon eta erabateko zentzuan, onena aukera dezazuen; horrela, garbi-garbi eta esankizunik gabe iritsiko zarete Kristoren egunera; zintzotasun emaitzez beterik, Kristo Jesusen bitartez, Jainkoaren aintza eta gorespenerako.

Aleluia (*Lk* 3, 4b. 6)

Urra ezazue bidea Jaunarentzat,
zuzendu Haren bidexkak;
eta ikusiko dute guztiek
Jaungoikoaren salbamena.

Ebanjelioa (*Lk* 3, 1-6)**Homiliarako argibideak**

Prestatu bidea Jaunari

Gure mundu materialistan, asko dira zoriontasun betera, erlijiorik eta Jainkorik gabeko edo kristauon Jainko pertsonalik gabeko espiritualtasun batera eramateko salbamen-eskaintza espiritualistak. Proposamen horiek ahaztu egiten dute ez dela gizakia Jainkoarengana igotzen dena, baizik eta Jainkoa dela gure giza historiara etorri dena. Kristautasuna **erlijio historikoa** da, eta gaur egungoa izaten jarraitzen duen iragan bateko gertaera jakin batzuk pribilegiatzen ditu.

Ez dago Jainkoa historia zehatzetik kanpo aurkitzeko modurik; izan ere, Jainkoa da historiaren Jauna, eta gizakion askatasunaren alde ari da bertan. Gertakari historiko eztabaidaezin bat da historia horren erdigunea: **Jesusen jaiotza**. Ebanjelioak kontu handia du gertakari horri eguna jartzeko orduan, Gabon gauen entzungo dugun bezala. Baina badira gertaera horrekin lotutako beste gertakari historiko garrantzitsu batzuk. Jesusek salbamenaren Berri Ona aldarrikatu aurretik, Joan Bataiatzailearen profeta-deia dugu, eta berri horren koordinada historiko espazio-tenporalak agertuko zaizkigu gaurko ebanjelioan (Lk 3,1-6).

Basamortuko predikatzaile gisa aurkezten zaigu Joan, eta harengandik datorkigu abentura mesianikoa. Jesus ere basamortuan hasiko da. Joanez **Jainkoaren bidea prestatzera** gonbidatzen gaitu, aurrez profetek egin bezala. Jainkoak ez du behar, noski, guk bidea presta dakiogun, gizakiokin bat egitera etortzeko. Aitzitik, Berak bakarrik ezar dezake Beraren eta gizakiaren arteko bidea. Guk badakigu Kristo dela bide hori. Ez da gizakia Jainkoarengana igo daitekeena, alderantziz: Jainkoa jaitsi zen, gizakionganako maitasunagatik. Maitasun hori gai da basamortuan eta itsasoan bideak zabaltzeko, behin betiko bidea marratu ezin daitekeen tokian.

Gaurko lehenengo irakurgaiari (Ba 5,1-9) mendiei, muinoei eta sakanei aginduak ematen ageri zaigu Jainkoa, autobide moduko

zerbait bihur daitezzen herri deserritua itzul dadin. Ez dira faltako zuhaitzak, galtzadaren alde banatan, eta aurretik joango da Jainkoa, herria gidatzen. Jainkoaren ospea, horren justiziarena eta horren errukiarena poz-arrazoi izango dira salbatutako herriarentzat. Ez gara gu Jainkoaren bidea prestatzen dugunak. Hobe esan, gu geu **prestatzen gara**, Jainkoaren bidean sartzeko. Horretarako, hainbeste desberdintasunik gabeko mundu bat sortzen ahalegindu behar dugu, hainbeste haran sakon eta hainbeste amildegi malkartsurik gabea.

Beharrezkoa da Jainkoagana zabaltzea, Hark gugan hasitako lan ederra burutu ahal izateko (Flp 1, 4-11). Kristauaren bizitza Kristoren itzulerari begira dago. Denbora dugun bitartean Kristoren bitartez **fruituak ematea** da kontua, Jainkoaren aintza eta laudoriorako. Ebanjelioa gure munduari iragartzeko modu zehatza da. Hitz xumeek ez, bizik eta Jainkoaren ekintza Kristorengan islatzen duen bizimoduak ematen duten sinesgarritasuna. Bizimodu horrek besteekiko maitasunarekin eta zerbitzuarekin du zerikusia, pobreenekikoarekin batez ere.

Fruitu horiek emateko, beharrezkoa da **otoitza**; horregatik egiten du otoitz Paulok etengabe bere jarraitzaileen alde, horregatik egiten digu dei etengabe otoitz egitera. Otoitzak bakarrik zabaltzen du pertsona Jainkoaren ekintzara, hori da salbazioaren protagonista. Otoitzak begi aurrean jartzen digu Jesusen eredia. Jesus da Jainkoak gugana etortzeko aukeratutako bide zehatza; horregatik, gizakiaren eta Jainkoaren arteko elkertasunerako bidea ere bada. Jainkoak Gabonetarako bere etorrerarako presta gaitzala eskatuko dugu Eukaristian, Harengan zentratuta aurki gaitzan, kontsumismoak harrapa gaitzan utzi beharrean pobreekin elkertasunez jokatzeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Atera gaitzen bakez datorkigun Jaunaren bidera eta egin diezaiozun otoitz:

Erantzuna: Zatoz, Jauna, gu salbatzera!

- Eliza poz handiz bizi dadin beti, eta itxaropen osoz sinets dezan Jauna gertu duela. Egigun otoitz. R/.
- Egiazko bakez bizi gaitezen, errukiaren, barkamenaren eta adiskidetzearen bidetik. Egigun otoitz. R/.
- Jaunak, Bere etorreraz, bihotz hautsiak sendo ditzan eta belaun makurtuak sendotu. Egigun otoitz. R/.
- Jainkoaren promesak fede beroz sinets ditzagun eta Beraren laguntzaz hitz emandakoak onartzeko prest ager gaitezen. Egigun otoitz. R/.

Maitasunean neurrigabea zaren Jainko Jauna, apalak Zure erreinuaren distiraz betetzen dituzu; entzun itzazu gure otoitzak, zuzendu gure bideak zugana eta beheratu gure harrokeriaren gailurrak, Zure Seme Jesu Kristoren etorrera fede sutsuz ospa dezagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa: Abendualdiko 1. (*Meza-liburuan, 310. or*)

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Arimaren janari honek aserik,
otoitzean gatozkizu, Jauna:
erakutsiezaguzu, sakramentu honetan parte hartu dugunoi,
lurreko gauzak zentzuz erabiltzen
eta zerukoei jarraitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bukaerako oharpena

Adiskidetuta bizitzea, zalantzarik gabe, bihotz-berritzearen adierazpen da: heriotzatik bizitzara igaro izanaren ondorioa. Eukaristia da adiskidetutako gizadi berriaren ezaugarri nagusia: ospatutako misterioaren indarrez bizitzara bidaltzen gaituena.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Jesu Kristo etorri dela sinesten duzue

eta berriro aintzaz etorriko dela itxaroten:

Jainko ahalguztidun errukitsuak,

Haren etorreraren argiaz,

santu egin zaitzatela eta bere bedeinkapenez bete. R/. Amen.

Bitza honetan gorde zaitzatela Jainkoak

fedean sendo, itxaropenean alai

eta maitasunean eginkor. R/. Amen.

Orain gure Salbatzaile gizon eginaren etorreraz

pozten zaretenok

gero, berriro aintzaz etorriko denean,

betiereko biziaren saria iritsi diezazuela. R/. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.